

# KONTZERTUA

# CONCIERTO



Anakako Parroquia (Irun) · 2013/12/14 · 18:30h

-EASO Eskolania  
-ARAOZ Gaztetxo abesbatza

PIANOA: OSCAR CANDENDO  
ZUZENDARIAK: MADDALEN DORRONSORO  
GORKA MIRANDA

IN MEMORIAM. ARANTXA MANTEROLA ARRIETA

(1949-3-15 / 2012-3-1)



Gauzak erabiltzeko dira eginak; pertsonak, berriz, maitatzeko. Mundua oker dabil gauzak maite ditugulako eta pertsonak erabiltzen

Easo Abesbatza Elkartearen neska eta mutil gaztetxoen “Easo Eskolania” eta “Araoz Gaztetxo” koruek omendu nahi dituzte, bere kantuz, Anaka parrokiako Arantxa Manterola zena eta auzoaren zerbitzuan ahalegintzen diren bertako guztiak. Kristautasunaren funtsa diren solidaritatea eta zerbitzua erakutsi izana oroitu eta eskertu nahi dugu.

*Los objetos fueron hechos para ser usados. Las personas fueron hechas para ser amadas. El mundo va mal porque se usan las personas y se aman los objetos.*

*Es fácil ser generoso con los que amamos. Es meritorio ser solidarios y serviciales con los desconocidos, los necesitados, los enfermos, los marginados...y emplear nuestro tiempo en la educación integral de nuestros niños y niñas, adolescentes, jóvenes y adultos. Este canto de los coros infantiles del Easo quiere ser un homenaje a Arantxa Manterola y a todas las personas comprometidas, en Anaka y en el mundo, que no esperan a cambio más que la satisfacción de las cosas bien hechas*

**Araoz Gazttxo abesbatza** 2009an sortu zen Easo Musika Eskolaren barruan. 10 eta 12 urte bitarteko 30 bat neskek osatzen dute. Easo Musika Eskolara gero eta neska gehiago hurbiltzean gertatu zen abesbatza honen sorrera. Horrela, taldea, musika eta hezkuntza alderdiak lantzeaz gain, Easoko gainontzeko abesbatzen arteko zubia da, eta neskak Easo Araoz Gazteren parte izateko prestatzen dira.

2009ko maiatzean Araoz Gazttxoko kideek Iñigo Peñaren "Mariren Labirintoa" musikalean hartu zuten parte, eta baita urte hartako Kilometroak ospakizunean eman zen kontzertua bertsioan ere. 2010eko martxoan Zorroaga Fundazioak antolatutako Haur Abesbatzen Topaketetan hartu zuen parte, eta 2012an ere berriro gonbidatua izan zen.

Abesbatzak azken urtetako Musika Hamabostaldiako Inaugurazio Egunetan parte hartu du, baina aipamen berezia merezzi du Araoz Gazttxok Araoz Gazterekin batera Jesus Guridi konpositorearen inguruan eskaini zuen kontzertu monografikoak, Hamabostaldiaren 72. edizioan, 2011an, Donostiako Udaletxeen. Urte horren amaieran "Leireri Gertatutakoak" ipuin musikalak eskaini zuen Kursaaleko Gabonetako Haur Parkean.

2012an Araoz Gazttxok beste talde batzuekin batera eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin, Txirri, Mirri eta Txiribitonen 40. urteurreneko kontzertuetan abestu zuen Gasteiz, Bilbo eta Donostian. 2013. urtean, abesbatzak Ken Zazpik eta EOSak elkalanean grabatutako diska sinfonikoan hartu du parte eta "Donostia 1813 Oroitza" Haur Kantata estrenatu du, Easo Abesbatzak Josu Elberdin konpositoreari eskatutako obra hiria suntsitu eta gerora berreaiki zela gogoratzeko.

Zuzendaria: **Maddalen Dorronsoro**



El coro Araoz Gazttxo nace en 2009 dentro de la Easo Musika Eskola. Lo componen unas 30 niñas entre los 10 y los 12 años.

La creación de este coro se enmarca dentro del creciente número de niñas que se incorporan a la Musika Eskola, cuya gran demanda ha hecho posible crear un grupo propio con alumnas de estas edades. Asimismo, además de los objetivos musicales y propiamente educativos, uno de los objetivos del grupo es hacer de puente entre los demás coros de niñas del Easo y prepararlas para formar parte del Easo Araoz Gazte.

Los componentes de Araoz Gazttxo han tomado parte en actuaciones como el musical de Iñigo Peña "Mariren Labirintoa" junto con otros coros de Oarsoaldea y Donostialdea en mayo del 2009, y la versión de concierto de dicho musical en el Kilometroak 2009. En marzo del 2010 participó en los Encuentros de Coros Infantiles de la Fundación Zorroaga, y el grupo fue de nuevo invitado el 2012..

El coro ha tomado parte en todas las Jornadas Inaugurales de la Quincena Musical de los últimos años, pero merece mención especial el concierto monográfico de Jesús Guridi que Araoz Gazttxo junto a Araoz Gazte ofreció en la 72 edición de la Quincena Musical de San Sebastián en el ayuntamiento de la ciudad en 2011. A finales del mismo año el coro ofreció el cuento musical "Leireri Gertatutakoak" en el Parque Infantil de Navidad del Kursaal.

En el 2012, Araoz Gazttxo junto con otras agrupaciones y la Orquesta Sinfónica de Euskadi participó en los conciertos homenaje del 40 aniversario de Txirri, Mirri eta Txiribiton en Vitoria, Bilbao y Donostia. Durante el 2013, el coro ha participado en la grabación del disco sinfónico de Ken Zazpi en colaboración con la OSE, y ha estrenado la Cantata Infantil "Donostia 1813 Oroitza" de Josu Elberdin, encargo del Coro Easo, para la conmemoración del bicentenario de la quema y posterior reconstrucción de la ciudad.

Director: **Maddalen Dorronsoro**

**Easo Abesbatzaren Eskolania**, 1992. urtean sortua, mutilen ahotsez soil-soilik osatzen den talde bakanetako bat da gaur egun Euskal Herrian; bere lan serio eta iraunkorrari esker interpretazio-maila bikaina egiaztatu du.

Urte hauetan egindakoen artean azpimarra daiteke bere eskuhartzea ondorengo festibaletan:**Bordeleko De vive voix, Donostiako Musika Hamabostaldia, Santanderreko Nazioarteko Festibala, Pariseko hiribilduaren Eliz Artearen Festibala, OLBE-ABAOKo opera eta Bilboko orkesta Sinfonikoaren musika denboraldietan...**

Halaber, nabarmen daitezke bere kolaborazioak antzinako musika talde espezialituekin: Hala nola, **Alla Francesca** taldearekin Montserrateko Llibre Vermell interpretatzuz, **Discantus** ahots-musika taldearekin, **Notre Dame Eskolako XII.-XIII** mendeetako musika kantatuz. Azken lan hau grabatu zuen Opus 111 diskonetxeak, Eya Pueri izeneko diskoa, kalifikazio hauek eman zizkiotelarik: **“Bost Izar”, Goldberg** aldizkari espezializatuak, **“Choc”-a, Le Monde de la Musique** aldizkariak eta **“Cinq Diapasons”**, **Diapason** aldizkariak; baita gorespen-kritikak **Scherzo, Gramophone, Fanfare...** aldizkariek egindakoak ere.

Nahiz eta, bere ezaugarriengatik, antzinako musikaren eremuan berezitu den, bere aldakortasun-ahalmenak eraman du alor ezberdinako erreptorioak lantzena; Honela, operak interpretatu ditu **Easo Eskolaniak: Bizet**-en Carmen, **Mozart**-en Txirula Liluragarria, **Puccini**-ren Bohème eta Tosca, **Ponchielli**-ren Gioconda... Ondorioz, goi-mailako musikariekin kolaboratu ahal izan du.

Parte hartu du ere telebistan eta zineman; nabarmenduko ditugu **Euskal Irrati Telebistan** 1999 eta 2003. urteetan emandako Eguberri-Kontzertuak eta Nos miran(2001) eta Ladrones(2006) filmen jatorrizko soinu-bandetan izandako partehartzea.

Zuzendaria: **Gorka Miranda Blanco**



Creada en 1992, es en la actualidad una de las pocas agrupaciones del país integrada exclusivamente por voces de niños varones, que gracias a un trabajo serio y continuado ha conseguido una contrastada calidad interpretativa. A lo largo de su existencia cabe destacar la participación de la misma en los festivales **De Vive Voix de Burdeos, Quincena Musical de San Sebastián, Festival Internacional de Santander, XXV Festival d'Art Sacré de la ville de Paris, Temporada operística OLBE-ABAO, Temporada de la Orquesta Sinfónica Bilbao...**

Asimismo, la agrupación ha realizado importantes colaboraciones con conjuntos especializados en música antigua, como el grupo **Alla Francesca** o el conjunto vocal **Discantus**, con quien ha cantado música de la **Escuela de Notre Dame** de los S. XII-XIII. Este trabajo fue grabado por la discográfica Opus 111, en un disco titulado **Eya Pueri**, recibiendo excepcionales críticas y calificaciones en las revistas especializadas: Goldberg, Le Monde de la Musique, Diapasón, Scherzo, Gramophone, Fanfare, etc.

Aunque por sus características la **Eskolanía Easo** ha mostrado una cierta especialización en el campo de la música antigua, su versatilidad le ha llevado a abordar todo tipo de repertorio. Así el coro ha interpretado óperas como Carmen de **Bizet**, La Flauta Mágica de **Mozart**, La Bohème y Tosca de **Puccini**, La Gioconda de **Ponchielli**, El pequeño deshollinador de **Britten**, lo que le ha permitido colaborar con músicos de gran prestigio.

Desde su creación no han faltado las apariciones televisivas y cinematográficas entre las que cabría destacar los conciertos de navidad ofrecidos por la **Euskal Irrati Telebista** en 1999 y 2003 y la participación en las bandas sonoras originales de las películas **Nos miran (2001)**, **Ladrones (2006)** y del documental **Mugaritz B.S.O. (2010)**.

Director: **Gorka Miranda Blanco**

# **EASO ESKOLANIA ETA ARAOZ GAZTETXO ABESBATZA**

## **BIZET, GEORGES (1838-1875)**

CHANTS DES PYRENEES.

MON DOUX AMI / ENE LAGUN MAITE  
LA HAUT SUR LA MONTAGNE / GOIAN, MENDI GAINLEAN  
DE MES BREBIS LA PLUS CHARMANTE / ARDITAN XARMANGARRIENA  
LA HAUTE MONTAGNE / MENDI GOIERA  
ROSSIGNOLET / URRETXINDORRA  
CONNASSEZ-VOUS MA BERGERE? / EZAGUTU ENE ARTZAINSA

## **AZPIAZU, JOSEBA (1912-1986)**

AURRA EGIZU LO

## **SARASOLA, XABIER (1960)**

LAU EUSKAL ABESTI I

LAU EUSKAL ABESTI II

## **ARR: RUTTER, JOHN (1945)**

PERSONENT HODIE

## **OLAIZOLA, GABRIEL (1891-1973)**

HAURTXOA SEHASKAN

## **SARASOLA, XABIER (1960)**

GAU ILUNAK EZ BADU

## **ARR: WILLCOCKS, DAVID (1919)**

ADESTE FIDELES

PIANO: OSCAR CANDENDO

ZUZ.: MADDALEN DORRONSORO

GORKA MIRANDA

